

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3961

*EBAZPENA, 2015eko irailaren 16koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeetarako eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzako laguntzak ematen dituen, 2015erako, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.*

Deialdi honen bidez, bete egiten da otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuan xedatutakoa, 2015erako, bertan arautu baitira Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzak, hain zuzen ere nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 50. zk., 2007ko martxoaren 12koa). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, baina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu behar baitute.

Dekretu horren arabera, diru-laguntzen deialdia urtero egin behar da, eta beti adierazi behar da zein den deialdirako zenbateko osoa, zein den gehienezko zenbatekoa hautagai bakoitzarentzako oinarritzako dotazioan, eta zein den luzapenentarako zenbatekoa. Halaber, hautagaiak aukeratzeko irizpide bakoitzak baloratuko dituen alderdiak zehaztu behar dira, baita horien haztapena, eskabideak aurkezteko lekua, epea eta eskabide-eredua ere.

Deialdi hau egiteko eskumenari dagokionez, eta dekretu hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, lehendakariarena; eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen erakundea.

Aipatutako laguntzak kudeatzeari eta eman beharreko ebazpenei dagokienez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren organoena da eskumena; betiere, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta erregulatzeari buruzko ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 4.b) artikulua; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren funtzionamendu eta antolaketari buruzko Erregelamenduaren –martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuak onartutakoaren– 5.b) artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezkaritza Kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2015eko maiatzaren 6an egindako bilkuran.

Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen helburua da: Nazio Batuen erakundearen sistemako nazioarteko erakundeetarako eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzako laguntzak ematea, 2015eko ekitaldirako, erakunde horiek herrialde txirotuetan burutzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko.

## 2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetako laguntzak finantzatzeko ezarritako dotazio ekonomikoa 300.000 eurokoa izango da.

2.– Luzapenetara zuzendutako zenbatekoa 240.000 eurokoa izango da. Luzapenak emateko, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2016rako aurrekontuan.

Luzapenetarako eskabide kopuruaren ondorioz zenbateko hori agortzen bada, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak horren berri eman beharko du, luzapen gehiagorik onar ez dadin.

Edonola ere, luzapenetarako zenbatekoak ezingo du laguntza berriei zuzendutako zenbateko osoaren % 80 gainditu.

## 3. artikulua.– Diru-laguntza.

1.– Hautagai bakoitzaren oinarritzko dotazioa 18.000 eurokoa izango da.

2.– Herrialde hartzaileen bizi-mailaren ondoriozko osagarria kalkulatzeko, kontuan hartuko da Nazio Batuen Garapenerako Programako bidekoen eskala. Informazio hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren [www.elankidetz.euskadi.net](http://www.elankidetz.euskadi.net) webgunean egongo da; eta agendan bertan emango zaio eskatzen duen orori. Edonola ere, osagarri horretarako osagarriak ezin izango du gainditu hautagai bakoitzaren oinarritzko dotazioaren % 5, hau da, 900 euro.

3.– Lankide boluntarioak agentzia multilateralen eremuan jasotako prestakuntza espezifikoak – erakunde eskatzaileak antolatua edo emana denak– eragindako gastuek ezin izango dute gainditu hautagai bakoitzari emandako laguntzaren oinarritzko zenbatekoaren % 2, hau da, 360 euro.

4.– Era berean, erakunde eskatzaileek hautagaien aurretiazko hautaketa eta beken jarraipena egiteko administrazio-lanek eragindako gastuek ezin izango dute gainditu hautagai bakoitzari emandako laguntzaren oinarritzko zenbatekoaren % 1, hau da, 180 euro.

5.– Aurretik esandakoa gorabehera, otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, Agentziako Artekari Kontseiluak proposatu ahal izango du, txosten arrazoitua jaso ondoren, 6. artikuluko 1. idatzi-zatian berariaz jasota ez dagoen beste edozein kontzeptu onartzea.

## 4. artikulua.– Eskariak aurkeztea.

I. eta II. eranskinetan jasota dagoen eredu normalizatuari jarraikiz aurkeztuko dira eskabideak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo aurrera hilabete epean. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bideren bitartez ere aurkeztu ahal izango dira, honako leku honetara zuzenduta:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Nafarroa kalea 2

01007 Vitoria-Gasteiz

2.– Eskabideak aurkezteak berekin dakar otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuan xedatutako baldintza guztiak osorik eta berariaz onartzea.

5. artikulua.– Hautagaiak aukeratzeko irizpideak eta horien haztapena.

Hautagaiak aukeratzeko irizpideak eta horien haztapena honako hauek izango dira:

1) Nazioarteko Erakundeak adierazitako lanari egokitzen zaion lanbide-profila eta horri titulazio akademikoa: 20 puntu, gehienez.

a) 10 puntu: adierazitako lana betetzeko titulazio egokia duela egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: lanak eskatzen duen profilerako, gutxienez urtebeteko esperientzia duela egiaztatzen badu.

2) Garapenerako lankidetzaren edo generoaren arloko prestakuntza espezifikoak: 20 puntu gehienez.

a) 15 puntu: master-ikastaroren bat edo antzekoren bat egin duela egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: adituentszako ikastaroren bat edo antzekoren bat egin duela egiaztatzen badu.

c) 5 puntu gehienez: garapenerako lankidetzaren edo generoaren arloarekin loturiko ikastaro espezifikoak egin dituela egiaztatzen badu.

– 20 eta 40 ordu bitarteko ikastaroak: puntu 1, ikastaro bakoitzeko.

– 41 eta 60 ordu bitarteko ikastaroak: puntu 2, ikastaro bakoitzeko.

– 61 ordu edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak: 4 puntu.

3) Lankidearen lana txertatuta duten programen edo proiektuen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziatik bultzatzen den lankidetzaren arteko lotura sinergikoa: 20 puntu gehienez.

a) 20 puntu: zeregina garatzen bada Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekiko lankidetzaren hitzarmena sinatuta duen nazioarteko erakunderen bateko bulegoetan.

b) 10 puntu: zeregina txertatuta badago honako jardun-sektoreak biltzen dituzten programeetan edo proiektuetan: eskubide unibertsalak, gobernantza demokratikoa eta tokiko boterea, tokiko garapen ekonomikoa, ingurumenaren babesa eta kontserbazioa, emakumezkoen ahalduntzea.

4) Lankideak ekintza garatuko duen bulegoak eskatzen duen/dituen hizkuntza/k jakitea: 10 puntu gehienez.

a) 5 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko B1 mailaren baliokidea.

b) 8 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 mailaren baliokidea.

c) 10 puntu: Hizkuntza Eskola Ofizialeko C1 mailaren baliokidea.

5) Euskal Autonomia Erkidegoko izaera sozial eta humanitarioko erakunde edo programei aktiboki lotuta egotea: 20 puntu gehienez.

a) 20 puntu: boluntariotzan edo lankidetzan 5 urte edo gehiagoko esperientzia egiaztatzen badu.

b) 10 puntu: boluntariotzan edo lankidetzan hiru urtetik bostera bitarteko esperientzia egiaztatzen badu.

c) 5 puntu gehienez: boluntariotzan edo lankidetzan hiru urte baino gutxiagoko eta gutxienez hiru hilabeteko esperientzia duela egiaztatzen badu.

6) Lankideak bere ataza garatzen duen eremu geografikoa: 10 puntu ataza honako herri haue-tako batean gauzatzen bada: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Brasil, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador eta Venezuela; Boli Kosta, Ruanda, Mozambique, Saharar Errepublikak Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Senegal, Palestina eta India.

6. artikulua.– Prozedura kudeatuko duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro hau kudeatzeko atazak egitea. Hartarako, laguntza-eskabideen gaineko balorazioa eta azterketa teknikoa egingo du Koordinazio Teknikorako Zerbitzuak, eta, bestalde, proposamena helaraziko dio Balorazio Batzordeari. Hartarako batzarturik, batzorde horrek proposamena egingo dio organo eskudunari, hain justu ere bekak esleitzeari buruzkoa.

7. artikulua.– Balorazio Batzordea.

Aurreko artikuluan aipatu Balorazio Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

– Batzordeburua: Ainara Arrieta Archilla, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren arduraduna.

– Batzorkidea: Nicolás Basarrate Hormaechea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.

– Batzorkidea: Amaia Etxabarri Saiz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Administrazio Orokorreko teknikaria.

– Idazkaria: Ana Isabel Rojo González, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

8. artikulua.– Esleipena egiteko eskumena duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria da deialdiko bekak esleitzeko eskumena duen organoa.

## AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan berariaz xedatuta ez dagoen ororako, honako hiru hauetan jasotako xedapenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta Nazio Batuen sistemako nazioarteko erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzak arautzen dituen otsailaren 13ko 22/2007 Dekretua, hain zuzen ere nazioarteko erakunde horiek herrialde txirotuetan garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei bekak emateko xedea duena.

## AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2015eko irailaren 22a, asteartea

## AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 16a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.



Imprimir

## I. ERANSKINA

**NAZIO BATUEN SISTEMAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETARAKO ETA ERAKUNDE HORIEI LOTUTAKO PERTSONA JURIDIKOETARAKO LAGUNTZA ESKAERA, NAZIOARTEKO ERAKUNDE HORIEK HERRIALDE POBRETUETAN EGINDAKO GARAPEN PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANKIDE BOLUNTARIOEI BEKAK EMATEKO**

## ESKAERA KARATULA

Lankidearen izen-abizenak:

Lankidearen NANae:

Nazioarteko helburu-erakundea:

Helburuko herrialdea:



## Euskal erakunde eskatzailea edo Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritza iraunkorra identifikatzeko datuak

Izena (*adierazi izen osoa, estatutuen arabera*):

IFZ:

Helbidea:

P.K.:

Herria:

Lurraldea:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa (e-maila):

Webgunearen helbidea:

**Erreferentziako pertsona identifikatzeko datuak, eskaerari buruzko elkarrizketetarako**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Lanpostua eta kargua: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Helbide elektronikoa (e-maila): \_\_\_\_\_

**Egitekoaren iraupena**

Aurreikusitako hasiera-data: \_\_\_\_\_

Aurreikusitako amaiera-data: \_\_\_\_\_

Guztizko iraupena : \_\_\_\_\_ (hilabeteak)

**Finantzaketa:**

Lankidearentzako zuzkidura: \_\_\_\_\_ (euro)

Prestakuntza espezifikorako gastuak: \_\_\_\_\_ (euro)

Erakunde eskatzaileen kudeaketa-gastuak: \_\_\_\_\_ (euro)

Osagarri-gastuak helburuko herrialdearen bizi-mailaren \_\_\_\_\_ (euro)

Bestelako gastuak (ikus 6.2 artikulua eta adierazi kontzeptua): \_\_\_\_\_ (euro)

**Eskatutako guztizko diru-laguntza:** \_\_\_\_\_ (euro)

**Erantzukizunpeko aitortpenak:**

- Euskal erakunde eskatzaileak edo EAEko ordezkariak, ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galaraziko liekeen administrazio- edo zigor-zehapenik jaso, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioan erortzeagatiko zehapenak barne, eta horretarako ezgaituko lituzkeen lege-debekurik ere ez dute bete behar.

- EAEko erakunde eskatzailea edo ordezkariak ez dago itzulketa- edo zehapen-prozeduraren eraginpean. *(Zirkunstantzia hori ez da arrazoi deialdian parte ez hartzeko, baizik eta diru-laguntza eman eta ordainduko da baldin eta arestian aipatutako itzulketa- edo zehapen-prozedura amaituta badago).*

- Eskaera honetan bildutako datuak eta haiekin batera doazen dokumentu eta memoriak egiazkoak dira.

- EAEko erakunde hartzaileak edo ordezkariak indarreko araudian laguntza horien onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen ditu, hori egiaztatzen duten agirien jabe da eta diru-laguntza baliatzen duen bitartean betekizun horiek betetzen jarraitzeko konpromisoa hartu du.

**Balidazio baimenduak:**

- Nire baimena ematen dut Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak automatikoki eta behar adina aldiz egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla.

**Konpromisoak:**

- Erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari jakinarazteko diru-laguntza jaso ahal izateko eskatu eta kontuan hartzen diren betekizunen bati eragiten dion zirkunstantzia oro aldatzen bada.



2015eko irailaren 22a, asteartea

**AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (X bat idatzi dagokion laukian)**

(\*) bat adierazi den kasuetarako, aurkezten den lehen aldia bada edo aurreko urtearekiko aldaketarik badago aurkeztu beharko dira bakarrik. Gainerako dokumentuak behin bakarrik erantsiko dira, deialdira aurkeztutako hautagai kopurua edozein izanik ere. Kasu horretan, adierazi zer espedienteri erantsi zaion:

Eskuineko zutabean, erantsi beharreko dokumentu mota adierazi behar da, B (betekizuna) edo M (merezimendua) batekin berezia.

**I. ATALA. ESKAERA (dokumetu hone osagarria)***Digitala Papera Bet. / Mer.*

1.1.- II. eranskina (inprimaki tekniko eta CVa), ahal dela euskarri digitalean, atal guztiak ongi betez eranskinean jasotako jarraibideak aintzat hartuta.

**B**

1.3.- Euskarri digitalak erantsiz gero, adierazi euskarri mota eta kopurua: *(esaterako CD 1, 2 USB eta abar)*:

--

**II. ATALA. ERAKUNDE ESKATZAILEA (Nazio Batuetako Batzorde Nazionalak eta/edo Autonomikoak):***Digitala Papera Bet. / Mer.*

2.1\*.- EAEn erakunde eskatzailearen ordezkari den pertsonaren ahalordearen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.

**B**

2.2\*.-Dagokion erregistroaren inskripzioaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.

**B**

2.3\*.- Erakunde eskatzailearen estatutuen originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.

**B**

2.4\*.- Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiaren (IFZ) txartelaren originala edo kopia autentifikatua/konpultsatua.

**B**

2.5.- Tokiko bulegoek hautagai bakoitzarentzat idatzitako Erreferentziazko Terminoak, ahalik eta modu zehatzenean.

**B**

2.6.- Egindako alde aurreko hautaketa-prozesua zehazten duen txostena, zeinetan deialdiaren berri emateko erabili den sistema, programan parte hartzea eskatu dutenen kopurua eta haien prestakuntza- eta lanbide-arloko profila adieraziko diren.

**B**

2.7.- Hautagaiei emango zaizkien prestakuntza espezifikoko moduluen memoria, gaiak eta hizlariak bilduko dituen.

**B**

2.8.- Lankide boluntarioak bere egitekoa beteko duen Nazioarteko Erakundeak eta erakunde eskatzaileak sinatutako hitzarmenaren dokumentua, non lankidearen egitekoa betetzeko erabiliko den bulegoak hartutako konpromisoa gutxienez azalduko den, hau da, bulego horrek konpromisoa hartuko du lankideak bere egitekoa behar bezala betetzeko beharrezkoak dituen baldintza materialak eta teknikoak ez ezik beste baldintza batzuk (oporrak eta barne-prestakuntza) ere emateko, baita dituen betebeharrak azaltzeko ere.

**B**

2.9.- Erakunde eskatzailearen eta lankide boluntarioak sinatutako hitzarmenaren dokumentua, otsailaren 13ko 22/2007 Dekretuaren 5.2.a) artikuluan aipatutako atalak bilduko dituen.

**B**

2015eko irailaren 22a, asteartea

III. ATALA. ERAKUNDE ESKATZAILEA (pertsona juridikoak)	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
<p>3.1.- Aurreko atalean adierazitakoez gain (1. puntutik 9.era), Nazio Batuen Batzorde Nazional edo Autonomikoarekin egindako akordio, hitzarmen edota protokoloak behar bezala egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Batzorde horren bitartez gauzatu beharko da lankide boluntarioa txertatzen deneko proiektua.</p>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<b>B</b>
IV. ATALA. LANKIDE BOLUNTARIOAREN DOKUMENTAZIOA	Digitala	Papera	Bet. / Mer.
<p>4.1.- Erroldaren ziurtagiria, lankide boluntarioa EAEko edozein udalerritan 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzeko. Lankide boluntarioa herrialde pobretuetan egitekoak gauzatzen ari delako betekizun hori egikaritu ezin bada, egoera hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da, baita pertsona hori aldi hori baino lehenagotik EAEko edozein udalerritan urtebetetik beherakoa ez den segidako aldi batean bizi izan dela egiaztatzen duen dokumentua ere.</p>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<b>B</b>
<p>4.2.- Lankidearen NANaren kopia, zeinaren bitartez egiaztatuko den 2015ean ez dituela 35 urte bete.</p>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<b>B</b>
<p>4.3.- Curriculum vitae, ezarritako formatuaren arabera, eta curriculum vitae egiaztatzen duen dokumentazioa:</p> <p>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Titulazioa egiaztatzeko, honako dokumentu hauetakoren baten kopia konpultsatua erabiliko da: 1) titulua, edo 2) titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, edo 3) ikasketa-espeditenteko nota, titulazioari dagokion proba orokorra gainditu izana eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana adierazten duela.</li> </ul> <p>Homologazio-eskaeraren ebazpena jasotzeke dutenek edo eskaera egin ez dutenek, baina urtarrilaren 16ko 86/1987 Errege Dekretuaren 16.1 artikulua arabera, atzerriko Titulua izanik eta titulua homologatzeko premiarik izan gabe, Espainiako Unibertsitateetako graduondoko ikasketak egin dituztenek (horretarako aurretiko betekizuna da bigarren zikloari dagokion unibertsitateko titulua -lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa - izatea) honako hau aurkeztu beharko dute egiaztasun gisa: lortutako titulua eta programa horiek egin zituzten Unibertsitateko errektoreak emandako baimena, edo Dokorego Batzordeak emandako irizpenaren kopia, zeinetan esanbidez baimena eman zen pertsona hura matrikulatzeko, egin beharreko espezializazio-ikasketak eskatuta aurkeztutako atzerriko ikasketa-espeditentea eta titulua egokiak direla egiaztatu ondoren.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garapenerako lankidetzaren eremuan eta/edo generoan prestakuntza espezifiko duen dokumentazioa.</li> <li>• Hizkuntzak dakizkiela eta egindako ikastaroak egiaztatzen dituen dokumentazioa.</li> <li>• Garrantzitsutzat har daitezkeen bestelako dokumentazioa</li> </ul>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<b>M</b>

2015eko irailaren 22a, asteartea

\_\_\_\_\_, 20 \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (a)

\_\_\_\_\_  
(Erakunde legez ordezkatzeko duen eskatzailearen izena)

(Erakunde legez ordezkatzeko duen eskatzailearen sinadura)



## II. ERANSKINA

## FORMULARIO TEKNIKOA ETA HAUTAGAIEN CURRICULUM VITAEA

NAZIO BATUEN SISTEMAKO NAZIOARTEKO ERAKUNDEETARAKO ETA ERAKUNDE HORIEI LOTUTAKO PERTSONA JURIDIKOENTZAKO LAGUNTZAK, NAZIOARTEKO ERAKUNDE HORIEK HERRIALDE POBRETUETAN EGINDAKO GARAPEN-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN LANKIDE BOLUNTARIOEI BEKAK EMATEKO

## I.- HAUTAGAIEI BURUZKO INFORMAZIOA

1.- LANKIDEAREN EGITEKOA TXERTATZEN DEN PROIEKTUARI ETA JARDUEREI BURUZKO DESKRIBAPEN XEHATUA (deskribatu, 25-50 lerrotan, eduki nabarmenena).

2.- LANKIDEAK GARATU BEHARREKO EGINKIZUNEI BURUZKO DESKRIBAPEN XEHATUA (deskribatu, 20-50 lerrotan, lankideak garatu beharreko eginkizunak, datu nabarmenenak adierazita).

2.1.- Lankideak garatu beharreko eginkizunak:

2.2.- Lankidea txertatuko den organigrama:

3.- KOKAPEN XEHATUA.

4.- ESPERO DIREN EMAITZAK (deskribatu, 10-20 lerrotan, lankidearen eta proiektuaren bidez espero diren emaitzak)

4.1.- Espero diren emaitzak.

4.2.- Emaitzen lorpen-mailaren adierazleak.

4.3.- Adierazleak egiaztatzeko iturriak.

5.- PROIEKTURAKO BEHAR DEN LANKIDEAREN PROFILA, EGOKITZAT HARTZEN DEN TITULAZIOA ADIERAZITA.

6.- GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAK HELBURUKO LURRALDEAN BULTZATZEN DUEN LANKIDETZAREN GAINERAKO ALDERDIEKIN EGON DAITEZKEEN SINERGIAK.



## II.– LANKIDEAREN CURRICULUM VITAEA

### 1.– INFORMAZIO OROKORRA:

Izen-abizenak: .....

NAN: ..... Jaioteguna: .....

Helbidea: ..... Herria: .....

Probintzia: ..... PK: .....

Telefonoa: .....

Helbide elektronikoa: .....

### 2.– INFORMAZIO AKADEMIKOA:

#### 2.1.– Titulazio akademikoa:

Zertan lizentziaduna? (zehaztu): .....

Ikastetxea: .....

Ikasketak amaitu zitueneko data: .....

Ziurtagiri akademikoaren nota: .....

#### 2.2.– Graduatu ondoren egindako ikastaroak:

Titulua: .....

Ikastetxea: .....

Iraupena: ..... Lortutako nota: .....

Titulua: .....

Ikastetxea: .....

Iraupena: ..... Lortutako nota: .....

#### 2.3.– Bestelako ikasketak edo ikastaroak:

Titulua: .....

Ikastetxea: .....

Iraupena: ..... Lortutako nota: .....

Titulua: .....

Ikastetxea: .....

Iraupena: ..... Lortutako nota: .....

2015eko irailaren 22a, asteartea



## 3.– Hizkuntzak:

Lankideak ekintza beteko duen lekuan erabilitako hizkuntza edo hizkuntzak:

--

Lankideak egiaztatutako hizkuntza edo hizkuntzak:

Hizkuntza	Maila	Egiaztagiria
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

## 4.– LANBIDE-IBILBIDEA:

## 4.1.– Baliatutako bekak eta laguntzak:

Erakundea	Bekaren izena	Hasiera- data/Amaiera-data	Iraupena
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....

## 4.2.– Lan-esperientzia:

Erakundea	Postua	Hasiera- data/Amaiera-data	Iraupena
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....
.....	.....	.....	.....

## 5.– EGINDAKO LANAK ETA ARGITALPENAK:

Titulua: .....

Non argitaratua: ..... Data: .....

Titulua: .....

Non argitaratua: ..... Data: .....

## 6.– BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

--